

6. FITXA Energia garbiko tokiko proiektu berezietan inbertsioak egiteko laguntzak erronka demografikoa duten udalerrientzat (DUS 5000 PROGRAMA)

Norentzat: 5.000 biztanlera arteko erronka demografikoa duten udalerrietako proiektuak edo hiri inguruneak ez diren 20.000 biztanlera arteko udalerrietakoak, baldin eta bertako entitate bakan guztiek 5.000 biztanle badituzte gehienez.

Esteka: Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua - [IDAE](#)

Erreferentziako araudia: [691/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa \(BOE 2021/08/04\)](#) + IDAEk argitaratuko dituen jarraibide teknikoak

Eremuak: Energia garbia, energia berriztagarriak, energia-komunitateak eta mugikortasuna

Zenbatekoa: 75.0000.000 €, (hasieran batean EAeri dagokiona: 2.418.750 €)

Aurkezteko hasiera- eta amaiera-data: 2021/11/05etik (13:00etan) 2022/11/05era arte, aldeztatik aurrekontu erabilgarria agortzen ez bada.

Laburpena

Errege Dekretu honen helburua **DUS 5000 PROGRAMA** gauzatzea da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren **C2.I4 inbertsioaren zati dena (Berroneratze eta Erronka Demografikoko Programa), 2. osagaiaren barruan** ("Espainiako Hiri Agenda ezartzea: etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berroneratzeko Plana"). Horrela, deskarbonizazioari lagunduta, azpiegitura berdeen inbertsioak sustatuz, energia fosiletatik energia-sistema garbi baterako trantsizioa egin ahal izateko.

Errege Dekretu honek arautzen dituen laguntzak bereziak dira, lehentasuneko kolektibo batean (hau da, errege-dekretu honen xede diren laguntzak jasoko dituzten udalerrietan) trantsizio energetikoko proiektuak epe laburrean sustatzeko premia dela-eta. Proiektu horiek berekin ekarriko dute inbertsio berdeak sustatzea, eraikinen, ekipamenduen eta azpiegitura publikoen efizientzia energetikoa hobetzea, energia berriztagarriak sortzea eta kontsumitzea, oro har, eta, bereziki, autokontsumitzea, eta horietan mugikortasun jasangarria bultzatzea. Berezitasun hori, bestalde, aukera-irizpideetan ere oinarritzen da, eta, horren ondorioz, jarduera egokienak ezarri behar dira eremu guztietan aurreikusitako deskarbonizazio-helburuak lortzeko.

Onuradunak (692/2021 Errege Dekretuko 2,6 eta 9. artikulukoak)

- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako toki-erakundeak.
- Aurrekoak ez diren tokiko edo tokiz gaindiko beste edozein erakunde, legez eratua eta nortasun juridiko propioa duena.

- c) Lurraldeko toki-erakundeen mendeko edo haiei lotutako erakunde autonomoak eta erakunde publikoak, tokiko zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzeko eginkizuna dutenak, baldin eta erakunde edo entitate horiek merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik egiten ez badute.
- d) Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak eta Nafarroako foru-erkidegoa.

Aldi hautagarria (692/2021 Errege Dekretuaren 18. artikulua)

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak egiteko eta Errege Dekretu honetan araututako laguntzen xede diren proiektuak gauzatzeko epea **24 hilabetekoa izango da, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.**

Jarduera-ildoak (692/2021 Errege Dekretuaren I. ERANSKINA)

→ **1. neurria. Eraikin eta azpiegitura publikoetan energia-eskaria eta -kontsumoa murriztea.**

- a) Eraikinaren inguratzaile termikoaren gaineko edo haren itxituretako baten gaineko jarduketak, berezita (estalkiak, zoruak, baoak, hormak eta mehelinak), eraikuntza-soluzio konbentzional eta ez-konbentzionalen bidez.
- b) Fluido bero-eroaleak mugitzeko ekipoen ordez eraginkortasun energetiko handiko beste batzuk jartzea, hodi-sareen isolamendu termikoa barne.
- c) Kanpoko aire bidezko doako hozte-sistemak eta erauzketa-airearen beroa berreskuratzeko sistemak.
- d) Ekipo konbentzionalak eta instalazioaren energia-kontsumoa murrizten duten lurrunketa-teknikak konbinatzen dituzten sistemak.
- e) Energia aurrezten duten ekipoen eta/edo instalazioen kontrolatzeko eta erregulatzeko sistemak.
- f) Titulartasun publikoko bero- eta/edo hotz-sare zentralizatuak zabaltzea.
- g) Eraikinetako luminariak, lanparak eta ekipoen beste multzo batengatik ordeztea.
- h) Pizteko eta argiztapen-maila erregulatzeko kontrol lokaleko edo urrutiko kontroleko sistemak.
- i) Argiztapen-sistema aldatzea.
- j) Monitorizazio-sistemak ezartzea.
- k) Argi naturala aprobetxatzeko sistemak.

→ **2. neurria. Autokontsumorako elektrizitate berriztagarria sortzeko instalazioak, biltegitratzeko aukerarekin edo gabe:**

Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak ezartzen dituen araudian jasotako edozein autokontsumo-modalitatetako instalazioak, bai isolatuta, bai sarera konektatuta. Hautagarriak dira, halaber, apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan arautzen ez diren sareko instalazio isolatuak.

→ **3. neurria. Sorkuntza termiko berriztagarriko instalazioak eta bero- eta/edo hotz-sareak.**

- a) Eguzki-energia termikoa.
- b) Geotermia.
- c) Giro-energia (aerotermia eta hidrotermia).
- d) Biomasa.

→ **4. neurria. Argi-kutsaduraren aurkako borroka, argiteria eraginkor eta adimenduna, landa-smart eta IKTak.**

- a) Kanpoko argien, semaforoaren eta seinaleztapeneko, biztanleekiko komunikazioko edo tokiko trafikoa zaintzeko beste linea batzuen sareak automatizatzea.
- b) Eraikin eta bulego publikoetako autokontsumorako instalazio eta instalazio kontsumitzaileetako energia-eskariaren kudeaketa, kontrol aktiboa eta monitorizazioa, bai eta udalerriko energia-kontsumoari eta sorkuntza berriztagarriari buruzko informazio-sistemak ere.
- c) Azpiegituren integrazioa, udalerrien energia-eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko.

- d) Banaketa-sare adimendunak (Smart Grids), jatorri berriztagarriko sorkuntza banatua kudeatzeko. Sare horiek kudeagarriak izan beharko dute.
- e) Udalerriko kanpoko argiteria-instalazioak teknologia eraginkorragoaren bidez erreformatzea, telegestioa barne.
- f) Telegestio-sistemak ezartzea.

→ 5. neurria. Mugikortasun jasangarria

- a) Oinezkoen mugikortasuna sustatzeko jarduerak:
- b) Bizikleta bidezko mugikortasuna derrigorrezko mugikortasunean ezartzea.
- c) Eskola-bidea: Eskolara oinez eta/edo bizikletaz joatea sustatzea.
- d) Aparkaleku-politika berria.
- e) Garraio publikoa.
- f) Autoaren erabilera partekatua sustatzea: Biztanleek autoa partekatzeko plataforma gaitzea.
- g) Bideak berrantolatzea eta diseinatzea.
- h) Ibilgailu publiko elektrikoak: zerbitzu publikoa ematen duten toki-erakundeen titulartasuneko ibilgailuen parkea berritzea (txatar bihurtuta), betiere ibilgailu elektriko entxufagarriekin.
- i) Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura.

Laguntzen zenbatekoa eta mota *(692/202 Errege Dekretuaren 5,11 eta 21. artikulua)*

Laguntzak emateko prozedura **zuzeneko emakida** bidez egingo da, aurkezpen-datari dagokion lehentasun-hurrenkera kontuan hartuta. Diru-laguntzek **inbertsioaren % 85 lagunduko dute diruz, eta % 100, "proiektu integraltzat"** jotzen badira, udalerraren energia-trantsizioan eragin nabarmena izateagatik.

Erakunde onuradun batek hainbat laguntza-eskaera aurkeztu ahal izango ditu, betiere proiektu bat baino gehiago gauzatzea badute helburu. 40.000 €-tik gorako eta 3.000.000 €-tik beherako guztizko inbertsio hautagarria dakarten proiektuei dagozkien eskabideak bakarrik aurkeztu ahal izango dira. Guztizko inbertsio hautagarritzat joko da eskabidean planteatzen diren jarduketa-neurri guztien batura. Halaber, **udalerrri bakoitzeko 6.000.000 euroko gehieneko laguntza-muga ezarriko da (udalerrri horren lurralde-eremu berean gauzatu beharreko proiektuetarako erakunde eskatzaile batek edo gehiagok jasotako laguntza guztien batura).**

Laguntza horiek bateragarriak izango dira helburu bererako beste laguntza edo diru-laguntza batzuekin, baldin eta haien jatorria ez badago Europar Batasunaren laguntza-funts edo -programa batean, eta laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste pizgarri batzuekin batera, proiektuaren kostua gainditzen ez badu.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak *(692/2021 Errege Dekretuaren 10. artikulua)*

- Diruz lagun daitezkeen inbertsioak, besteak beste, honako hauek:
- a) Laguntza-eskaera egiteko eta izapidetzeko kudeaketa-kostuak eta txostenak zein laguntza eskatzeko behar den gainerako dokumentazioa idaztearen kostuak.
 - b) Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin lotutako proiektu teknikoak idaztearen kostuak.
 - c) Diruz lagun daitezkeen jarduerak gauzatzeko lizitazioaren xede diren pleguak idaztearen kostuak.
 - d) Jarduketan zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
 - e) Obrak egiteko eta/edo instalazioak muntatzeko kostuak.
 - f) Ekipo eta materialetan egindako inbertsioa.
 - g) Jarduketak egin izanaren justifikazioa kudeatzeko kostuak.
 - h) Beharrezkoa denean, auditoreak justifikazio-kontuari buruz egindako txostena.
 - i) Beharrezkoa denean, laguntzaren xede diren jarduketak behar bezala egin direla egiaztatzen duen txostena, kontrol-erakunde edo -entitate batek egina.

- j) Jarduketa-tipologia bakoitzerako beharrezkoak diren beste partida batzuk (osagarriak edo ez), l. eranskinean deskribatzen direnak, laguntzaren xede den neurri bakoitzerako.
- k) Amiantoa duten eraikuntza-produktuak kentzearen kostuak, jarduketaren ondorioz amiantoa kendu behar denean.
- l) DNSH printzipioari dagokionez, irizpide teknikoak eta ekonomikoak betetzeko hartuko diren neurri zuzentzaileak ezartzeko kostuak.
- m) Proiektuan edo memoria teknikoan Hondakinak Kudeatzeko Plana txertatzeko beharrezkoak izan daitezkeen kostuak.
- n) Laguntzaren xede diren proiektuen garapenarekin lotutako tokiko araudia egokitzeko zerbitzuak kontratatzeke beharrezkoak izan daitezkeen kostuak, baldin eta egokitzapen horrek diruz lagun daitezkeen inbertsioaren eraginkortasuna errazten badu.

Beste alderdi interesgarri batzuk

- ✓ **Diru-laguntzak kudeatzeko eta emateko prozedura** (692/2021 Errege Dekretuaren 12-17 artikulua)

Izapidetze elektronikoa. Inprimakia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa gaztelaniaz aurkeztu beharko dira.

- ✓ **Diruz lagundu daitezkeen inbertsioen justifikazioa** (692/2021 Errege Dekretuaren 19. artikulua)

Organo instrukzio-egileari, gehienez ere 2 hilabeteko epean, exekuziorako epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, 2025eko azaroaren 30eko epemugarekin. Agiri bidezko justifikazioa egoitza elektronikoaren bidez egingo da.